

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

2013/4/12 | 381

 Txomin Garmendia eta Aritz Larreta

 Mintzalagun partaideen barnetegia

 Alkasoroko benta. Mikel Taberna

 Iparraldea eta Hegoaldea kantuan




Bonberenea,

Ametzak
bizteko garra




Irene Arin, Julen Arrieta eta Iñigo Irurzunekin solasean




Kotxean lekua izanez gero
Nola joan ez jakinez gero

Nafarroaren egunera
elkarrekin joan gintezke!

Jarri Galtzaundirekin harremanetan:
943 65 50 04
koordinatzailea@galtzaundi.com







aldama_tapia

aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com



Zure Tolosaldeako Super-a,
orain OnLine



Zerbitzua eta kalitatea

http://www.supereko.net

Erosketak etxera eramango dizkizugu
Eskerrik Asko



ESPEZIALISTAK
BEGIEN OSASUNEAN

Ba al zenekien ikusmenaren
azterketa lagungarria izango zaizula,
glaukoma, begi-lausoak eta
begietako nekea diagnostikatzeko?

IKUSMENAREN
HILEA

Multiópticas-en begien azterketa egingo
dizugu, konpromezurik gabe.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Eneritz Iraola, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Bidera Publizitatea
661 678 818 • aetxaniz@bidera.eu

Banatzaileak: Olatz Garmendia
Juankar Arregi

Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Galtzaundi
Diseinua: Zigor Agirrezabala

Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 4.500 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankoe Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegolan, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

kutxa gizarte ekintza



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.

Erreportaia:
Bonberenea, Ametsak bizteko garra

Patxi Muñoa Gorostidi 37 urteko tolosarrarekin elkartu gara, Bonberenearen sorreratik, gaur eguneko bilakaera bitartean izan dituzten bizipen eta kezkez luze hitz egiteko. Tolosako gaztetxean, gazteen alor ugariez hitz egiteko parada izan dugu: gaur egungo giza balioen gabezia, kontzertuetarako kartelak jartze hutsagatik izandako jazarpen poliziala edo bidean bizitako une gogoangarriak. Gazteen sormen kulturalerako kezka eta rockaren hariak txertatutako adiskidetasun aldarria da Bonberenea.

8-11. orrialdeak

KMK festaren baitan lehenengoz Ikasle Batzorde bat antolatu da. Laskorain Ikastolak ikasleei hitza eman nahi izan die eta gazteen lanketaren lehen emaitza Ahora! Bideo Lehiaketa izan da. Galtzaundi Irene Arin, Julen Arrieta eta Iñigo Irurzun ikasleekin bildu da KMK13rekin duten inplikazioa gertutik ezagutu asmoz.

Elkarrizketa: Irene Arin, Julen Arrieta eta Iñigo Irurzun

14-16 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Txomin Garmendia eta Aritz Larreta Bereziartua	4-5
	Mintzalagun partaideen barnetegia	6-7
	Tolosa Sortu	12-13
	Irakurlearen begietatik: Alkasoroko benta. Mikel Taberna	17
	Iparralde eta Hegoalde kantuan	18-19

Aita Santu berria degula-ta



Txomin Garmendia
Bertsolaria

2013'ko martxaren 13'a ezkeroz Aita Santu berria degu Batikanon, Frantzisko izenarekin ezagutuko dena; orain arteko marka guztiak autsi ditula esan bear izendatze onek; Itali eta Europatik kanpoko, lenengoa, ain zuzen Argentinakoa dalarik, munduko idazle eta gazetari guztiak dantzan jarri ditu eta bada oraintxe zertaz itzegin. Badakit nere ezjakiñerako gai astuna da, ala ere zerbait borobildu nai det borondaterik onenez.

2004'ko urtea izango zan, Juan Pablo II'na Aita Santua errukarri zabillen, ibiltzeko etzan gauza, itzegiteko ere naiko larri, eta bertsolari jaialdi batean Amuriza eta biori gai au eman ziguten: "Biok kardenalak zerate eta ezdabaidan zabiltzate, Amurizak dio, Aita Santuak erretiratu egin bear lukela eta Garmendia jarraitzearen aldekoa da".

Nere lenengo bertsoa onela izan zan oker aundi gabe:

Itzegiteko gaur badadukat komeni ainbat aldarte, gu bi kardenal ezetz da baietz Aita Santua bitarte. Bere gisara utzita ere

azkena ez du aparte; bere aulkian jarrai dezala Jainkoak nai duan arte.

2005'garren urtean il zan, baiña aurrez nion bezela azken urtetan errukarri bizituta. Aren ondoren jarri zan Benedikto XVI'garrena, berriz, naiko itxura onekoa dagola erretiratu egin zaigu, ain kargu aundia ondo eramateko ez dala gauza-ta. Ekintza on asko egingo zitun Benedikto XVI'nak Aita Santu izan dan zortzi urtean, baiña txalogarrietako bat, orain egin dun erretiratze au. Orra bi Aita Santu oso iritzi ezberdiñetakoak. "Zenbat buru, ainbat aburu" esan zunak etzun gezurrik esan.

Oraingo Aita Santu berri onek, Eleizari aldakuntz asko ekarriko dizkiola diote; nere ezerrezean ni ere orretan nago; gizon berriak asmo berriak beti ditu-ta. Adibidez, bat, apaizak ezkontuta bizitzeta izan liteke, eta abar. Mundu guztia konpontzeko kapaz gerala uste degunak, eskatzen ditugun danak ez ditula eman-go ere gogoan izan dezagun.

Kontuak-kontu, guri otoitz egitea komeni zaigu, Espiritu Santuak argitu dezan eta munduaren onerako urte askotarako Aita Santu bat izan dedin.

Irakurlea au dezu nere alegiña, ez dago egongo noski ondogi egiña. Atrebitua beti da gizon ezjakiña; arren barka zazute nere utsegiña.



Hartu euskara elkarri

"Eman euskara elkarri" esan digu bukatu berri den Korrikak. Mezu hori dela eta, aurtengo Korrikak iraun duen bitartean, behin baino gehiagotan entzun diegu AEKko arduradunei euskarak euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar duela, elkarri hitz egiteko hizkuntza, elkar entzuteko eta ulertzeko hizkuntza.

Baionan egindako Korrika amaierako jaian ere bide beretik hitz egin zigun Amets Arzallusek: "Ikasten ari denak ematen dio irakasten ari denari zentzua. Irakasten ari denak ematen dio hiztun zaharrari norabide berri bat. Hiztun zaharrak eman behar dio ikasten ari denari eskua. Denok eman behar diogu elkarri euskara."

Lelo polita, ezta? Bada, baldin eta euskara elkarri eman-go badiogu, euskara hartu nahi dutenak ere ezinbesteko zaizkigu. Hori da, hain zuzen, gaur eta hemen ahora ekarri nahi dudana kontua, euskara hartu nahi dutenak nahi/behar ditugula! Euskal hiztunok euskara eman ahal izateko, euskara hartzeko gai direnak behar ditugu parean, aurrez aurre. Askok dira ahalegin horretan dihardutenak, baina gehiago oraindik nahi izate horretatik urrun daudenak.

Tamalez, Korrika dezente beharko ditugu azken helmugara iritsi arte. Izan ere, Euskal Herri osoa kontuan hartuta, erdia baino gehiago dira euskara ulertu ere egiten ez dutenak. 2011n Eusko Jaurlaritzak egindako inkesta



Aritz Larreta Bereziartua
Irakaslea

Bada, baldin eta euskara elkarri emango badiogu, euskara hartu nahi dutenak ere ezinbesteko zaizkigu. Hori da, hain zuzen, gaur eta hemen ahora ekarri nahi dudana kontua, euskara hartu nahi dutenak nahi /behar ditugula!

soziolinguistikoaren arabera, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %58,4a ez da euskara ulertu ere egiteko gai. Hala, gu, euskaraz bizi nahi dugunok, kasurik onenean, euskal herritarren erdiarekin baino gutxiagorekin ari gintezke euskaraz; erdaldunek, bestalde, erdaraz aritzeko oso bestelako aukerak dituzte. Edonori eman diezaiekete erdara, Euskal Herrian denok ulertzen baitiegu.

Beraz, euskara elkarri emateko, euskara hartzeko gai direnak behar ditugu, euskara ulertzeko gai diren solaskideak behar ditugu. Kontuak horrela, zorionik eta eskerrik beroenak euskara hartzeko ahaleginean zabiltzaten guztioi. Zuetako askok ez duzue euskara lehen hizkuntza izango, baina Amets Arzallusek ongi esan zuen bezala, posi-

ble da bizitzan zehar euskara ama-hizkuntza bihurtzea, euskaraz pentsatzen ikastea.

Korrikaren aurtengo mezuan, hizkuntzen arteko bizikidetzaren aldarrikatu du AEKk. Nik, hizkuntzen arteko bizikidetzaz ez baino, hiztunen arteko bizikidetzaz hitz egingo nuke. Eta? Zein da bizikidetzarako lehen urratsa? Elkar entzun eta ulertzea. Gu, euskaraz gain erdara ere badakigunok, lehen urrats hori emateko moduan gara. Berdina esan al dezakete erdara baino ulertzen ez dutenak? Ez, ezta? Bada, lehen urrats hori emateko moduan ez dauden bitartean, euskaraz ari garenok ulertzeko gai ez diren bitartean, mesedez, ez diezagutela inor ezer inposatzen ari zaienik esan eta har diezagutela euskara guri, emateko amorratzen gaude eta!





Mintzalagun partaideen barnetegia

Galtzaundi Euskara Taldeak, Topagunearekin elkarlanean, hirugarren urtez jarraian Mintzalagun proiektua garaturik du Tolosan. Astero euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dutenak euskaraz aritzen direnekin elkartzen ditu honako egitasmoak. Oraingoan euskara praktikan jartzeko aukera berria zabalik dago, ordubetez aritu beharrean mintzalagunen asteburu pasa da partaideek aukeran dutena.

Erredakzioa

Esperientzia Etxalarren biziko da. Etxalar bihurtuko baita Euskal Herriko mintzalagunen bilgune apirileko bi asteburuetan. Apirilaren 13

eta 14an 28 lagunez osatutako lehen taldea abiatuko da Etxalarko Mintza Praktikarako Barnetegira. Lehen txanda horretan plaza guztiak

beteta daudenez bigarren txanda bat antolatu du orain arteko Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak, aurrerantzean Topagunea Euskaltzaleen Topagunea izango denak. Izan ere, martxoaren 23an Durangon ospaturiko Batzar Nagusian aipatu izen aldaketa adostu zuten bertan bilduriko kideek.

Apirilaren 20 eta 21ean plan bila dabilenak eta euskaraz aritzeko beharra duenak badu erantzuna Etxalarren. Jarraian zehazturiko egitarauan parte hartu nahi duenak 55 € ordaindu beharko ditu. Egitaraua esan bezala larunbat goizean hasiko da, ongi etorriarekin batera aurkezpen jolasekin hasiera emango diote parte hartzaileek euskara praktikan jartzeko barnetegia.

Ondoren sukaldaritza energetiko tailerra eginda bazkaria izango da. Arratsaldean ingurua ezagutzeko ibilaldia eta masaje tailerra egingo da. Eta afariaren ondoren euskal kantu gauari helduko diote bertan bilduriko partaideek.

Igandean ordea, Etxalar herria eta bertako etxeak ezagutuko dituzte bertako herritarren eskutik. Eta bazkariaren aurretik gainera kantu biran arituko dira herrian barrena. Ekitaldiz betetako asteburu horrenbestez Mokorreko-Borda baserrian (www.etxalarkobarnetegia.blogspot.com) bizi izango dutena Euskal Herri osoko mintzalagunek. Azken finean, euskara praktikan jartzeko gune ezin apropos eskaintzen du Etxalarrek.

Nafarroako iparraldean dagoen herria da Etxalar. Inguruko Arantza, Bera, Igantzi eta Lesakarekin batera, Bortzirietako eskualdea osatzen du, euskarari gune bizia eskainiz.

Parte hartzaileei harrera eginez Etxalarko Barnetegiko arduradunak izango dira: Peio Apezetxea, Jasone Mitxeltoarena, Leire Saitua, Jone Arrospide, Maite Olaetxea eta Anabel Arburua. Guztiak euskaltzaleak eta euskalgintzan trebatuak. Bakoitzak lan arlo bati helduz mintzalagunen aipatu asteburuetako gidariak bilakatuko dira.

Honako egitaraua larunbat goizean hasi eta igande bazkalostera arte luzatuko da.



55 euroren truke otorduak, lotarako lekua, tailerrak eta ibilaldiak jasoko ditu parte hartzaileak, euskara praktikan jartzeko aukerarekin batera. Izena emateko edota informazio gehiago eskuratu

ahal izateko Galtzaundi Euskara Taldearekin (galtzaundi@galtzaundi.com, 943 655004) edo Topagunearekin (arrate@topagunea.org, 673 428464) harremanetan jarri beharra dago.

*Irakurle Taldea:
Apirileko tertulia*
Eguna: Apirilak 18, osteguna
Ordua: 19.30
Lekua: Tolosako Kultur Etxea

*Irakurri beharreko liburua:
"Kristalezko begi bat"*
Miren Agur Meabe
bertan izango da

Galtzaundi 3B
13ko apirilak 12

Mahala
bertan elaboratutako
esneki eta txerriki
natural naturalak
www.mahalanaturala.com | 943 67 07 24

CDI
Informatika
Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak
GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAX: 943 653 916

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian
Bidera Publizitatea
661 678 818
aetxaniz@bidera.eu

Arteka
ESKULANAK
Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

R A K U
Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

enpresa katalogoak
aldizkariak
logotipoak
liburuak
publizitate komertziala
kartelak
egutegiak
bannerrak

antza
komunikazio grafikoa

Zirkuitu Ibilbidea, 2 / 2. pabiloia · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 370 738 / Faxa: 943 372 226 · info@antza.com · www.antza.com

Ametzak bizteko Bonberenea, garra

8

Patxi Muñoa Gorostidi 37 urteko tolosarrarekin elkartu gara, Bonberenearen sorreratik, gaur eguneko bilakaera bitartean izan dituzten bizipen eta kezkez luze hitz egiteko. Tolosako gaztetxean, gazteen alor ugariez hitz egiteko parada izan dugu: gaur egungo giza balioen gabezia, kontzertuetarako kartelak jartze hutsagatik izandako jazarpen poliziala edo bidean bizitako une gogoangarriak. Gazteen sormen kulturalerako kezka eta rockaren hariak txertatutako adiskidetasun aldarria da Bonberenea.

Felix Aiestaran

Duela hamalau urte, hainbat sektorek mesfidantzaz begiratzien zieten suhiltzaileen etxea hartu zuten gazte haiei. 1.100 kontzertu baino gehiago eta 150 disko ekoiztu ondoren, Tolosa eta Euskal Herri osoko miresmena irabazia du Bonberenea, euskal musikaren sormen eta emanaldien alorrean ikur garrantzitsu bihurtuta. Herrian sustraitze mailaren lekuko bizia da, horren tolosarra den txarangaren alorrean ere, Bonberenea txarangak herrian tokia egin du.

Bestetik, Zigor Agirrezabalak sortutako Bonberenearen logo borobilak herriko gaztetxoenetik hasita izan duen harrera beroa aipatu beharra dago.

Bonberenea, Tolosako gazteen auzolanaz, poliki-poliki sendotu da inolako erakundearen menpekotasunari uko eginez kultur sorkuntza eta parte hartzailearen aldeko apustua da. San Esteban Auzoan alor desberdinetako egoitzak bilduaz Kultur Lapikoa eratzeke lanean ari dira eta bestetik kontzertuen haritik

tiraka, abuztuan Fermin Mugu-ruza bertan izango dela aipatu beharra dago.

Noiz eta nola sortu zen Bonberenea?

Musika taldetan jotzen aritzen nintzen eta herrian musika arloan zegoen eremu lehorra zela eta 1997an alternatiba bila hasi ginen. Batzuek politika arloko borrokatik ekin zioten eta guk kultur arloari eutsi genion. Kultur eskasia zegoen eta garai hartako agintariak rocka marjinalizat

jotzen zuten. Aipatu beharra dago garai hartan Galtzaundik Martxaundi eta rock kontzertuak ere egiten zituela Ferialekuan. Orduko agintariak Gaztetxe izena entzun nahi ez zuten, okupatzeari ekin genion. Garai hartan irabazteko asko eta galtzeko gutxi genuen. Hemeretzi urteko gazteen freskotasunez eta ilusioaz hartu genuen Bonberenea. Okupazioak zazpi eguneko ibilbidea izan zuen. Atxilotuak izan ziren. Ez genuen etsi, zilegi zen zerbaitegatik ari ginen eta To-

pic dagoen Euskal Herri Plazako etxea okupatu genuen.

Horrek ondorio gogorak ekarri zizkizueten, ezta?

Bai, nahikoa etsita bukatu genuen. Kanporatu gintuzten eta epaiketarako deitu ziguten. Hainbat irregulartasun zirela medio artxibatuta bukatu zuen epaiketak. Esan beharra dago, Joxe Gurrutxagak agindu judizialik gabe kanporatu gintuela, besteak beste. EHk udaletxeko agintea eskuratzean, Antton Izagirrek entzuteko gaitasuna izan zuela aipatu beharra dago. Egitasmoa garatzeko tokia behar genuela adierazi genion. Lander Zabalza eta biok jakin genuen Bonberenea urtebetera botatzeko zela, aurreko udal agintariak jarraitu izan balute Larramendikoa baino lehenago, San Esteban ingurua etxex beteta egongo zen. Ea okupak ginen galdetzen ziguten. Ez horixe! Guk okupazioa bitarteko bezala erabili genuen, gure asmoa ez zen bertan bizitzea. Gaur asko nahasten ziren. Horrelaxe

sartu ginen eta gaur egun arte jarraitu dugu hamalau urteotan.

Ondoren etorri ziren beste udal ordezkariak...

Bildarratzekin pleno batean, Tolosako kulturgintzan eragilea izanik, Bonberenearen errekonozimendua aho batez onartu zen, 2007an. Lan egiten duen jendearen merituak aintzat hartzen ditu, baina bere interesak beste batzuk ziren. Bonberenea gustuko zuen egitasmoa zen, beste alkateen aurrean proiektua saltzea gustuko zuen. Bere helburua San Estebango hiri egitasmoa gauzatzea izan zen. Mila etxebizitza egiteko asmoa zuten. Guri gaztetxe lokal berri hobe emango zigutela esaten ziguten, baina gure filosofia ez zela hori esaten genien. Egunez egun bertakoek egindako lana errespetatzea eskatzen genuen. Hemen lan egin duenari egin dakioken omenaldirik handiena tokia errespetatzea da. Gaztetxeke partaideon borondatea errespetatzea eskatzen genuen. Joxelu

Anduezak Bonberenea ikaragarri maite zuen. Bizikidetzarako bideak egiteko oso lagun ona zen. Berak esaten zuenez, gure arazoa okupaziotik sortu izanaren oinarri politikoa izatearena zen.

Zein harremana izan duzue erakundeekin, oro har?

Bonberenea, sistematik kanpo dagoen egitasmoa izanik, erakundeak etsaiak izan direnik ez dut esango, baina lagundu ere ez dute asko egin. Erakundeek honelako proiektuei beldurra izan diete. Orain Ibai Iriarte alkate dago eta auzoa etxebizitzet josi beharrean, Bonberenea, Tolosaldeko komunikabideak, Ferialekua, Box.A eta beste eragile batzuk bertan bilduaz Kultur Lapikoa egitasmoa gauzatzeko lanean ari gara. Lehendik ere, San Esteban Auzoa kultur bilgunea bada. Joxi Ubedaren Tortura Sistematika eta Ruido de Rabia herrian inoiz aitortzen jaso ez duten taldeek hemen entseatzen zuten, 80. hamarkadan. Herrian bi mila etxe hutsik izanik ez dira

beste mila gehiago behar. Auzo honetan kultur eta formazio guinea indartzea oso onuragarria izan daiteke.

Tokia egokitzeak lan handia eskatu al zizueten?

Eskola edo lanetik kanpo gure denbora honi ematea eskatu digu. Ostiral eta larunbatero ateratako diruaz, autogestioaren bidez aurrera egin dugu, etxea pixkanaka egokituz.

Nolakoa izan zen hasierako Bonberenea hura?

Gaztetxunak ematen duen ilusio guztia eta eskarmenturik bat ere ez. Etxe honen motorra kontzertuak izan dira. Alegian entzun genituen taldeak, herrian bertan ikusi nahi genituen. Kultur alternatiboari irtenbidea ematea izan zen hasierako asmoa.

Zertan aldatu da?

Asko aldatu da. Internetak musikaren hedakuntza eragin duen aldaketa eta jendearen interesak nondik doazen ikustea, nahikoa



da. Aurrerapen teknologikoez diskoak grabatu eta kontzertuetarako ekipo egokia izatea eragin digu. Grabazioak zabaltzeko bidea ere eman digu. Lau belaunaldi pasa gara: lehenengoak tokia hartu eta proiektua finkatu zuen, bigarrenengoak estudioa jarri zuen, hirugarrenengoak txaranga sortu zuen eta laugarrenengoak hamabi urterekin hasitako gazteek Bonbereneako adar desberdinetan ari dira. Bonberenea gaztetu egin da eta belaunaldi artean lotura egiten jakin du.

Herriko trafiko seinaleetan Bonberenea agertzen da... Zerk bereizten du Bonberenea beste gaztetxeetatik?

Gauden tokia kontuan izanik, kanpotik etortzen zen jendeak non gauden jakiteko arazoak zituen, hiritar moduan udalari seinalea jartzea eskatu gion. Gure kultur ekintzetara % 60an Tolosakoa ez den jendea etortzen da. Seinaleak ikustean batzuek esan zidaten ofizialta-

sunean sartu ginela... Ez, guk jarritako seinaleak udaltzaingoak kendu egiten zituen eta horrek udalak berak seinaleak jartzea ekarri zuen, auzoan argi gehiago eta zabor kontainerrak jartzea ekarri zuen bezalaxe.

Zein harreman duzue beste gaztetxeekin?

Rocka gaztetxeak lotzen dituen harria da. 1.100 kontzertu egin dira hemen. Iruñea, Arrasate, Hazparnekoekin... ekin-tza desberdinak egiteko lotura dugu, noski.

Kudeaketa lana nola egiten duzue?

Urtean asanblada bakarra egiten da eta erantzukizun desberdinak banatzen dira bertan. Bestetik, norbere kultur proiektuak abian jartzeko plataforma da Bonberenea Ekintzak, disko-gintza, kontzertuak, txaranga... alorrak hartuaz.

Kultur alor askotara zabaldu

duzue zuen lana eta erreferente izatera ere iritsi zarete...

Estudioan jolas modura hasi ginen hasiera hartan, baina ondoren ogibide bihurtu da. Bertan ari da lanean Karlos Osinaga. 150 disko baino gehiago argitaratu ditugu eta hamar urteetan Durangoko Azokara joan gara. Berri Txarrak, Anari edo Fermin Muguruza hemendik pasako zirenik ez genuen amestu ere egiten... Musika eta euskal musika bere txikitasunean jasaten duen krisiari erantzuteko bitarteko egokia delako sendotu da gure musika estudioa. Disko ekoizpena eta emanaldiak hizkuntza desberdinetan izaten dira, baina beti ere euskarazko kantagintzari lehentasuna ematen diogu. Jendea etorri edo ez hasten ari den hemengo taldeari aukera eman behar zaio. Tontorrean dauden lauzpabost euskal taldeetatik beheko taldeen arteko tartea krisiak ikaragarri handitu du. Batzuek 80. hamarkadan talde hobeak zirela esaten didatenean, gaur egunekoek musika kalitate askoz ere hobeak dutela aitortu beharra dago. Jazz, pop, trash, dance... euskaraz gaur egun denetik dago. 80. hamarkadan norbait gitarra elektrikoarekin entseatze-ra joaten bazen bere gurasoei ea drogadiktoa zen galdetuko zieten; gaur egun edozein umek musika tresna bat jotzen aritzea oso onartua dagoen zerbait da. Gaztetxeek zuten ghetto kutxua gaindituta dago eta gure etxean umeetatik 50 urte artekoak ere hurbilazten duten ekitaldiak egiten ditugu.

Zein ñabardura eranstean dio Bonbereneak kultur ekoizpenari?

Hona etortzen den gaztearentzat Bonberenea eskola bat da.

Nola sortu zen txaranga?

Hamabost lagun instrumenturen bat jotzen ari zirenak elkartu eta 2003an sortu zen. Gaur egun 44 lagun izugarritzko ilusioaz ari dira. Tolosatik kanpo gure burua aurkezteko primerakoa izan da txaranga, baina herrian bertan, elkarleen artean badira sektore ultra-kontserbadoreak, emakumea ere elkarrean sartzea gaizki ikusten dutenak. Hor muga bat dugu. Inauterietan lehendabizikoz atera ginenean, *porreten* txaranga modura bataiatu gintuzten. Tolosako txarangen mundua oso kontserbadorea izan da, kantuen letrak irakurtzea aski da. Gaztetasuna zabaltzen poz horrekin herrian sustraitzeko bide egokia izan da txaranga. Diskoa 2005ean atera zuten, 2008an bestea eta 2011n Pirritx eta Porrotxekin batera atera zuten. Aurten, hamargarren urteurrena ospatzeko DVDa atera dugu. Bartolak zirela eta Ibarra-ko festetako koadrilen egunerako bazkariaren truke jotzera joateko eskatu ziguten hasiera hartan eta joaten hasi ginen. Egoera egonkortu eta alkatetza aldatu denean, deitzen jarraitu eta ordaindu egiten digute. Oso puntu polita da.

Zein emanaldi eta bizipen izan dira gogoangarrienak?

Jendearen arteko harremana azpimarratuko nuke. Bai onerako eta bai txarrerako. Kontzertu jendetsuena izateagatik ez da emanaldi hobeak izango. Hemen jotzeko etortzen den pertsona orori tratatu bera ematen saiatzen gara. Afaria, lo tokia, gosarirako cola-cajo-a eta behar dutena eskura jarritz, gure proiektuaren berri ematen diegu. Euskal Herriko zein mundu osoko taldeak ezagutzeko aukera ematen diegu. Japoneko 18 talde pasa dira. Taiwanetik, Hego Ameriketatik, Ipar

Ameriketatik ere jendea etorri da. Bonbereneak zirrara sortzen du. Bartzelonako batek adibidez, lehengoan esan zidan Bonberenea bezalako proiektua han pentsaezina dela.

Bonbereneak diskogintzan toki oso garrantzitsua egin du...

Bai, diskogintzan hamabi urte egin ditugu. Musikaren krisia hor dago eta talde askok gabezia horiei aurre egiteko modua hemen izan du. Ateak beti irekita izan ditugu. Joxi Ubeda eta biok 2002an disko bakarrarekin joan ginen Durangora, orain mahaia gaina betetzen dugu. Elikagaietan larunbateko ferian erosiaz bertako baserriko gaien alde egiten den modura, gure ekoizpen kulturala erostea bultzatu egin beharra dago. Kontzertuetara jendea inguratzea oso garrantzitsua da, aukera hauek ez badira zaintzen, kontzertuen tren honek ere alde egin dezake. Proiektu hauek zaindu beharraz jabetu behar da jendea, bertako kontzertu eta ekoizpenak kontsumituz.

Nola osatzen duzue urteko egitasmoa?

Udan geldialdia egiten dugu. Kontzertuez gain urtez urte herriko talde desberdinei laguntza emenez, egitasmo desberdinak egiten dira: Poka Tripakoen 50. urteurrena, Galtzaundirekin Martxaundi, auzoetako festak... Hirurogeiren bat kontzertu egin eta 5-6 disko atera eta 10-15 disko grabatuko ditugu. Instalazioak berrituaz, beti ere autogestioan, auzolan horretan aritzen gara. Herri ekimenei laguntza emateko gaude hemen.

Bonbereneak horrenbesteko izena egin izanak zein arrisku du?

Honelako kontuetan gehiegi instituzionalizatzeari izugarritzko ikara diot. Guk gure eskuez egin dakoak duen freskotasuna galdu daiteke.

Bonbereneak izugarritzko prestigioa du...

Bai, izugarri harritzen naiz. Bonberenea beti transbertsalitatean mugitu izan da, bere identitatea eta egitasmoak egiteko autonomiari eutsiz. Urteetako lanaz lortu dugula uste dut. Enpresa kontzeptuak ez du tokirik gure artean. Militantzia ari gara lanean hemen.

Tolosako gazteen artean zein toki du Bonbereneak?

Enrike Arostegik elkarrizketan zioen moduan, Bonbereneak Musika Eskolatik kanpo musikaren ikuspegia zabaltzeko aukera ematen ziela bere ikasleei. Txarangan joaz bere tresnarekin aurrera egiteko gogoaz aritzen dira. Inoiz baino hobeto eta gehiago gaude, harreman oso onak ditugu eta atzetik gazteak indartsu datoz. Gurasoek bere seme-alaba gaztetxera etortzearen puntua gaindituta dago. Gure artean gazteek dute lehentasuna. Balore batzuk izan behar dituzte gazteek: proiektuak egitea. Hemen erratza ere pasa beharra dago.

Zein behar ditu Bonbereneak?

Gure proiektua finkatzeko dugun beharra etxe berean gelditzea da. Jendeak gure balioak aintzat hartu eta gure eskaintzei erantzutea.

Zeintzuk dira gaurko gazteen arazoak?

Gizarteak eta gurasoek gehiegi babesten dituzte gazteak eta gaurko gazteek segurtate gabezia handia dute. Norbere jabe

izaten ikasi behar dute. Bere ametsei helduaz, bere kasa aurrera egin behar du gazteak.

Nola dago Euskal Herriko gaztetxeen mugimendua?

Ez dago garai hoberean. Gaztetxeak ugaritu egin dira, baina eguneroko lanerako militantzia ez da garai bateko bezain bestekoa. Baloreak galdu dira eta egozentrismoa nagusi da. Gaztetxeek betiko arazoa dute: erakundeek kontrolatu nahi dituzte. Kukutza modukoak ondo ari badira itxi egiten dituzte.

KMK13 dela eta zerbaitetan ari zarete, ezta?

Ahora Astea dela eta, maiatzaren 24an, Sakramentinoetako patioan Bonberenea txarangaren emanaldia egin nahi dugu. Doctor Deseoko Francis, Aitor Gorosabel eta hainbaten laguntzaz arituko gara. Gure iniziatibaz sortu da saioa eta gure erara egin nahi dugu. Ez dugu Leiorrera eraman nahi. Sakramentinoek gauza asko dakartzkigu burura eta hantxe egin nahi dugu. Gure ekarpena motibazioagatik egin nahi dugu, ez egin behar hutsa izateagatik. Kilometroak zertarako egiten den jendeak ikusarazi dezan, bertan egin diren berrikuntzak ikusi ere egin behar dira. Politza izango da patioa mila lagunez gainezka ikustea. Sentimendu hori ez du beste toki batek emango.

Zein egitasmo dituzue?

Gaur eguneko ildotik jarraitu eta eguneroko konpromisoarekin jarraitzea. Udalarekin Kultur Lapikoaren gaia borobildu nahiko genuke. Fermin Muguruzak abuztuaren 31n bere bira Bonberenean amaituko du. ©

Beti Alai
galtzaundi

Garaian garaiko janariak eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

GORRI

Paper manipulaziorako makina eraikuntza

Konponketa eta mantenimenduak

Apata industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra

Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Tolosa Sortu

"Gaztetasunaren indarra eta ilusioarekin Tolosarren alde borrokatzeko prest"

4 hilabete iraun dituen eztabaida publiko baten ondorio da SORTU, Euskal Herri aske baten alde borrokan ari diren independentista eta sozialistak barne bildu nahi dituen Herritar Batasun historikoaren adierazpen politiko berria. "Zutik Euskal Herria" adierazpena ardatz duen eztabaida horretan, SORTUren oinarri ideologikoak, ildo politikoa eta antolakuntza eredua zehaztu dira.

Horrez gainera, herrietako kontseiluetatik hasi eta mahai nazional arteko arduradun guztiak izendatu dira, eta horretarako, batzarretan parte hartu duen herritar orok izan du arduradunak proposatu eta aukeratzeko aukera, horrela, barne demokraziaren ariketa argia gauzatuz.

Eztabaida honek agerian utzi du, beste behin ere, ezker abertzalearen muskulu politikoa, datuek ez dute en-

gainatzen. Aurreko urteko udaberrian abiatutako aurre prozesuan Euskal Herri mailako 300 lagunek hartu zuten parte eta hauek egindako ekarpekin osatu ziren ponentziak. Ponentzia hauek, hain zuzen, 240 herritan eztabaidatu dira urrian hasi eta urtarrila bitarte egin den eratze prozesuan. Guztira 6.000 lagun baino gehiagok parte hartu du bertan. Tolosaren kasuan, burutu diren lau batzarretan 200 per-

tsonatik gora hartu dute parte. Nabarmenezko beste datua, eztabaidan parte hartu dutenen adina 20 urtetik 60 urtera artekoa izan dela gure herrian. Honek argi eta garbi adierazten du *Sortu* ibilbide luzea duen indar politikoa dela.

Barne hauteskunde on-dorioz, arduradun berriak izendatu dira ia arlo guztietan, nagusitasuna belaunaldi gazteek hartuz. Ardura askotan ikusi daitezke aurpegi berriak eta gazteak, honek freskura eta indarra adierazten duela-rik. Tolosaren kasuan *Sorturen* Kontseilua 13 lagunek osatzen dute eta horietatik 3 aurreko mahaitik datoz, gainerako guztiak eratze prozesuan eman diren Tolosako batzarretan parte hartu ondoren batu dira. Hilabete da Kontseilu berria martxan jarri zela eta denbora honetan egindako lanaren ondorioz dagoeneko finkatu dira datozen urteetan aurrera eramango diren hainbat borroka baita hauetako zenbait mar-

txan jarri ere, hala nola, hondakinen kudeaketa eraginkor baten aldeko borroka, osasun publikoaren aldeko borroka, presoen eskubideen defentsa, askatasun demokratikoen defentsa, euskal ikurren defentsa edota krisiaren ondorioen aurkako borroka.

Sortuk lan hau guztia bi eremu nagusitan eraman nahi du aurrera; alde batetik, instituzioetan eta bestetik kalean, azken honek garrantzia berezia izanik. Kalean, eragile sozialekin, sindikatuarekin, gazte eragileekin eta oro har, lanean ari diren eta lanerako prest dauden herritar guztiekin batera

gingo dugu lan, gauzagarriak diren alternatibak denekin ar- tean martxan jarri eta justua- goa izango den jendarte bat eraikitzeko.

Sortu, herri honek jasaten dituen zapalkuntzei aurre egi- teko borondatearekin jaio da. *Sorturen* helburu estrategi- koetan marraztu bezala Euskal Herri independente, sozialis- ta, feminista eta euskalduna eraikitzeko konpromiso irmoa du, askatasunera eramango gaituen bide luze honetan au- rrekoek egindako lanaren tes- tigua jasoz.

Azpimarratu beharra dugu Tolosako *Sortuk* herritar guz-

tion parte-hartzea beharrez- koa dela deritzola eta horreta- rako *Sortzaileak* egin zaitezten animatu nahi dizuegu Tolosar orori. *Sortzaileentzako* gune ezberdinak eratuko ditugu he- rrian: eztabaida gunea, buletin ofizia, deialdiak eta garran- tzitsuen deritzoguna, zuen iritzia kontutan edukitzeko konpromisoa Tolosako herri programan.

Adi laister abian jarriko du- gun "ni sortzailea naiz, eta zu?" kanpainari.

Harremanetarako:
sortutolosa@gmail.com

Gozotegia
Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA
Gipuzkoa

gizarte
kutxa

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04

BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL/FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Bidera Publizitatea
661 678 818
aetxaniz@bidera.eu



KMK festaren baitan lehenengoz Ikasle Batzorde bat antolatu da. Laskorain Ikastolak ikasleei hitza eman nahi izan die eta gazteen lanketaren lehen emaitza Ahora! Bideo Lehiaketa izan da. Galtzaundi Irene Arin, Julen Arrieta eta Iñigo Irurzun ikasleekin bildu da KMK13rekin duten inplikazioa gertutik ezagutu asmoz.

Naiara Roldan de Aranguiz

Bideo lehiaketak ezarritako baldintza bakarra gaia da: Ahora! Gainontzekoa ordea librea da, 5 minutuko iraupena izan behar du bideo bakoitzak, formatuari dagokionez edozein baliabide erabili daiteke -telefono mugikorrak, bideo kamerak..., nahi beste lan aurkeztu dezake parte hartzaile bakoitzak eta adina mugarik ere ez dago. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 10a da -Laskorain Ikastolako idazkaritzan edo kmk13lehiaketak@laskorain.net helbide elektronikoan-.

Sariak amu tentagarria osatzen dute. Lehen saria eskuratzen duenak 500 euro jasotzeaz gain 20 pertsonarentzat Getariako Askizu aterpean asteburu pasa edota tablet bat ere jasotzeko aukera izango du. Eta bigarren saridunak 250 euro eskuratuko ditu.

KMKen baitan lehenengoz ikasleek zeresan zuzena izango dute, Laskorain Ikastolak KMKen antolakuntzaren baitan Ikasle Batzor-

dea eratu baitu. Nola funtzionatzen duzue?

Irene Arin: Ikasle Batzordea sortu da beharra ikusi delako, gazteek antolakuntza parte har dezaten. Gazteen iritzia eta parte-hartzea garrantzitsua da. KMK festa nobaitentzat baldin bada guraso eta ikasle eta gazteentzat delako. Batzorde bezala lehenengoz urtarrean elkartu eta lanean hasi ginen. DBH 4. mailako, batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleak biltzen gara aipatu batzordean. Kurtso bakoitzeko sei bat ikasle hasi ginen biltzen, gerora animatuta eta interesatuta zeudenak gehitzen joan zaizkigu. Getarian elkartu ginen lehenengoz, asteburu pasa eginez, urteko ekitaldietan pentsatzeko. Orduan sortu zen bideo lehiaketa bezalako ekimenak antolatzearen ideia.

Julen Arrieta: Normalean astero biltzen gara, ostiralero, beharren arabera.

Iñigo Irurzun: Patio orduetan ere bildu izaten gara. Ostiraletan Unai Igartua koordinatzaileare-

kin elkartzen gara. Asteazkenean zehar landutakoa berarekin komunean jartzeko.

Irene Arin: Gure helburua ikasleak KMKen inguruan informatuta izatea da.

Zer nolako lanak hartu dituzue zuen gain?

Irene Arin: Gure helburua, ikasle eta gazte guztiak, ikastolakoek harago, KMK proiektuaz informatuta egotea eta parte sentitzea da. Orain arte egin duguna martxoaren 16an, Pirritx eta Porrotxen emanaldi egunean, bideo lehiaketarako dirua ateratzeko, Trianguloan pintxoak saltzea izan da. Bestetik, Pirritx eta Porrotxekin ere dantzan ibili ginen. Momentuan Ahora Astea antolatzen ari gara.

Julen Arrieta: Gure lan garrantzitsua ikasle guztiak gure proiektuaren parte sentitzea da.

Iñigo Irurzun: Honelako festa bat antolatzeke garaian gure iritzia kontuan hartzea oso garrantzitsua da.

Zer nolako erantzuna jaso duzue oraingoz Laskorain Ikastolakoak ez diren beste gazte horien aldetik, parte sentitu behar diren gazte horien aldetik?

Irene Arin: Bideo lehiaketa ikasleentzako ikastetxe aurkeztu dugu, orain erantzunaren zain gaude. Nik uste jendea animatuko dela...

Julen Arrieta: Guk azpimarratu nahi dugu KMK13 ez dela Laskorain Ikastolaren kontua soilik, Tolosaldea guztiarentzat ere badela.

Getariako Askizu aterpetxean bilduta zeundetela, nola sortu zen Ahora! Bideo Lehiaketa antolatzearen ideia?

Irene Arin: Gaua pasatzera joan ginen Getariara eta ekitaldietan pentsatzen hasi ginen, bideragarriak zirenak sailkatzen hasi ginen. Segidan hasi ginen bideo lehiaketan eta baita guk aurkezpenerako egin behar genuen bideoan pentsatzen ere. Gauean bertan gidoia prestatzen hasi ginen.

Izan ere, bideo lehiaketan bidea ireki nahi izan duzue, zuek ere lehiaketaren aurkezpen bideoa osatuz. Nolakoa izan da bideo horren prestaketa?

Irene Arin: Di-da egin genuen. Talde txikietan elkartu ginen ideia ezberdinetan pentsatzeko, argi genuen aurkezpena izan behar

zela, baldintzen berri eman behar genuela.

Julen Arrieta: Gure bideoan gazte koadrila bat furgoneta baten barruan ikusten da, bideo lehiaketaren berri izan eta talde horrek zer nolako erreakzioa duen transmititu nahi genuen. Jendea animatu dadin sortzen diren galderei erantzuna eman nahi genien.

Iñigo Irurzun: Betiko karteletan aparte bestelako modua erabili nahi genuen lehiaketaren berri emateko.

Esperientziarik al duzue, aldezturik bideo sorkuntzarik landu duzue?

Irene Arin: Ez, baina honakoa esan genuen: "lotsa pasa behar bada lotsa pasako dugu".

Iñigo Irurzun: Hori da kontua. Edozeinek egin dezake bideo bat, ez da ezer kostatzen.

Irene Arin: Gurea nahiko landua dago ikus-entzunezko komunikazioan aditua den neska batekin aritu garelako. Azpimarratu nahi dugu kalitateari horrenbesteko garrantzirik ez diogula emango, originaltasunak aginduko duela.

Lehiaketak zehazten duen baldintzetako bakarra gaiari egiten dio erreferentzia: "Ahora!". Zer iradokitzen dizue "Ahora!" leloak?

Irene Arin: Hasieran kosta zitza-



gun zentzua harrapatzea. Gaiak bueltak emateko aukera ematen du, buruari eman beharra dago. Guk gure bideoa sortzeko garaian gaztelaniazko ahora hitzaren lotura egin genuen.

Iñigo Irurzun: Gaia mamitsua da. Erdarazko kutsu horrekin jolas-tea badago. Pentsatu beharra da goela zalantzarik ez, baina gaiak aukera ematen duela zalantzarik ez.

Garrantzitsua eta beharrezkoa iruditzen zaizue "Ahora!" bezalako leloa, hau da, euskararen erabilari erreferentzia egiten diona? Gazte

ikuspuntutik aztertuta, gazteen erabilera eragingo duela uste duzue?

Iñigo Irurzun: Tolosan ez gaude kexatzeko moduan, gazteen euskararen erabilera handia da. Hala ere, handiagoa ere izatea dauka.

Irene Arin: Ezagutza handia da baina erabilera ez da horren handia.

Julen Arrieta: Mezua Tolosaldeetik harago zabaltzeak badu bere garrantzia, erabilera gutxiago dagoen tokietara iritsiz. Ikasle batzordeari begira, kanpoko gazteek haiek bezalakoak garelako ikusi eta euska-



raren alde gaudela, lanean ari garela ikusteak badu bere garrantzia.

Bideoen ezaugarriak kontuan harturik, zer nolako baldintzak bete behar dira iraupen, formatu, epe eta aurkezpenari dagokionez?

Irene Arin: Bideoak gehienez 5 minutuko iraupena izan behar du. Formatuari dagokionez, telefonoz mugikorrez zein bideo kameraz grabatzea dago. Edozeinek egitea du, edozein adineko pertsonak parte har dezake. Bideoak ez du zertan *sketch* baten antzekoa izan behar, modan dauden *lip dub*-ak, *harlem shake*-ak... onartzen dira.

Iñigo Irurzun: Eta baita gauza sinpleagoak ere. Originaltasuna da kontuan hartuko duguna.

Irene Arin: Parte hartzaileek maiatzaren 10era bitarteko epea dute. Bideoak Laskorain Ikastolako idazkaritzan edo helbide elektronikoz [-kmk13lehiaketak@laskorain.net-](mailto:kmk13lehiaketak@laskorain.net) bidali daitezke. Helbide elektronikoarekin arazoak izanez gero www.kilometroak.net helbidean jarraibide gehiago ematen dira. Garrantzitsua da bideoarekin

batera kontakturako datuak ere bidaltzea.

Zer nolako partaidetza espero dute?

Irene Arin: Gazte koadrilak animatuko direla uste dut. Sariak taldeka disfrutatzeko aukera emate horrek taldeka ere parte hartzera bultzatuko ditu gazteak. 20 lagunentzat asteburu pasa sari deigarria da; bakarka aurkeztuz gero tableta beste aukera bat izan daiteke, horri gainera 500 euroak gehitu behar zaizkio. Taldeko sariak xarma dauka, koadrilaren arteko borroka eta pike hori ere sortzen duelako.

Iñigo Irurzun: Gazteez gain gu-raso eta irakasleak ere parte hartuko dutela uste dut. Ikastetxeetan aurkezpen lanetan aritu garenean irakasleen parte hartzeko gogoia antzeman dugu.

Sariak parte hartzea sustatzeko amu garrantzitsu bihurtzen dira.

Julen Arrieta: Hori da bilatzen duguna. Jendea tentatzeko zer-bait lortu nahi genuen. Horretan aritu gara, dirua biltzen..

Iñigo Irurzun: Sariak nahiko po-

toiak dira. 5 minutuko korto bat egiteagatik, sari potoloak eskuratu daitezke, horrek jendearen partaidetza bultzatuko du.

Irene Arin: Hainbesteko saria jartzeak beldurra eman zigun, batak bat arte taldeen lanak jasotzera bultzatuko ote zuenaren beldur ginen. Baina gure helburua gazte lokalak eta tankerako taldeak mugitzea da.

Behin bideoak jasota epaiketa lana nola burutuko da? Lanik onenak ikusgai egongo al dira?

Irene Arin: Jasotzen dugun bideo kopuruaren arabera ebaluazio lana era batera edo bestera garatuko dugu. Agian epaimahai batekin, agian Facebook-en jarrit eta "atsegin dut" *click*-ak eskuratuz... Gure asmoa bideoak jendaurrean zabaltzea da, Tolosako tabernetan.

Orain artean KMK festa kanpotik ezagutuko zenuten, aurtan barrutik ezagutzeko aukera duzue. Nola baloratzen duzue antolakuntza lana orain?

Julen Arrieta: Oso diferentea da. Beste herri bateko KMK festara zoazenean egun bakarra izaten da, autobusa hartu, ondo pasa eta buelta. Orain ikusten dugu ez dela egun bateko gauza, urte osoko lana dago atzean. Gustatzen zaigulako gaude antolakuntzan.

Irene Arin: Nahiko saltseroak garelako.

Iñigo Irurzun: Ikasleok lanean ari gara gogoia dugulako. Lan egitea aberasgarria da guretzat. Lehenengo aldia da KMKen baitan Ikasle Batzordea osatu dela eta ikusten da ikasle ondarra garrantzitsua dela, gure iritzia kontuan hartzen dela, alegia.

Irene Arin: Parte sentitzea oso aberasgarria da guretzat. Beste herrietako KMKra joaterakoan

egitaraua aztertu eta parranda botatzea zen egin beharrekoa. Aurtengoa oso bestelakoa da, urtarilean hasi ginen lanean... Lehenago ikusi ez dugun lanaz jabetzen gara.

Ikasle Batzordea erreferentzia izango al da hurrengo urteei begira?

Iñigo Irurzun: Baietz espero dugu. Ikasle Batzorderik egongo ez balitz lan egiteko gogoz geratuko nintzen. Aurtan ikasle batzordea sortu izana hurrengo urteei begira oso garrantzitsua izango da. Ikasleen indarra eta gogoia kontuan hartzea, alegia.

Nola eragingo dio KMK festaren ospakizunak Tolosari zein eskualdeari?

Julen Arrieta: Euskara zabaltzen lagunduko du.

Iñigo Irurzun: Positiboa izango da, bai egunean bertan eta baita urtean zehar ere taberna eta dendentzat. KMK egunean Tolosak zenbat jende mugitzen duen ikusiko da.

Irene Arin: Guretzat ere, urte osoan zehar lanean aritu eta gero, egunean bertan ekimenen fruituak ikustea polita izango da.

KMK13 egunari begira Ikasle Batzordeak lanketa berezia egingo du. Zer aurreratu dezakezue?

Irene Arin: Indar fuerteenak egun horri begira jarri nahi ditugu.

Julen Arrieta: Ideak badaude baina oraingoz sekretuan gorde behar ditugu.

Iñigo Irurzun: KMK13 egunean bertan hainbat ekimen berri egongo dira eta hurrengo urteei begira dira, hurrengo urtetan ez dira falta izango.



Irakurlearen begiratik



Eneritz Iraola
Irakurlea

Pintzela gora eta beheara, ezker eskuin. Hamar mihise marraztu ditu idazleak. Bakarka irakurrita, hasiera eta amaiera duten istorioak kontatzen dituzten hamar margolan txiki. Denek batera mosaiko bakar bat osatzen dute. Baditu kolore ilunak, hotzak, baina pintzelkada argi eta epelagoei ere egin die lekua. Amaieran bat-bateko eztanda gordina. Barreneraino heltzen diren kolore zipriztinak. Hamarrek bat egiten dute eta ederra da erretinan itsatsirik gelditzen den azken arrastoa.

Alkasoroko benta. Mikel Taberna

Alkasoroko benta Mikel Tabernak (Alkaiaga, 1957) kaleratu duen lehenengo eleberria da. Lesaka eta Bera artean dago Alkasoro, idazleak sortu duen Bortzirietako seigarren herria. Hango bentako semearen begiek, Martin Irazokirenek, betetzen dute kamera zorrotzaren papera. Urteetan atzera egin eta 60. eta 70. hamarkaden argazkia egiten du idazleak. Orduko jendea eta giroa errealismo handiarekin deskribatzen zaizkigu. Sudurrera heltzen da bentako txikitoen usaina, belarrian sartu Felixianoren ateraldiak, sentitu barra atzeko Begoren desio begiradak, ikusi aldapa, ibai eta herriko txokoak... gu geu ere Alkasoron bagina bezala. Bortzerriak beharrean, egiaz sei herri direla pentsarazteraino.

Mikel Tabernak hizkera bizia darabil, freskoa. Protagonista



bera da gertaerak lehenengo pertsonan kontatzen dizkiguna *Bordatxo* izeneko pasartearen salbu. Benetan atsegina egin zait narratzaileak duen hitz-jarioa. Asmatu du gainera, pertsonaia hazten joan den heinean, eboluzio hori ere hitz egiteko moduan islatzen. Haur begirada batean, gizarte aldaketak ikusten dituen

gaztea bestean. Hori bai, beti bere xalotasunari eutsiz.

Idazleak lexiko eta esapide aldetik egin duen apustua ere ederra iruditu zait. Eleberria euskara batuaz idatzi duen arren, Bortzirietako euskaraz busti baitu orrialde bakoitza. Irakurleari sekula edo aspaldian entzun ez zituen hitzak eskura jarri dizkio. Horrek testuaren ulermenean ez du kalterik eragiten, hitzak testuingurua baliatuz azaltzeko modua aurkitu baitu. *Eltze-tzuak* aipatzen dira behin eta berriz, eta ez dira ez, bentako sukaldeko su gainean jartzen ziren ontziak. Hamar pasarte dira, banaka irakurrita ere ulertzen direnak. Istorio entretengarriak batzuk, gordi-nagoak besteak. Idazlearen gazte garaiko oroitzapenak fikzioarekin dantzan doaz. Ipuin laburrak direla pentsa liteke hasieran, baina irakurri

ahala konturatzen zoaz guztia ongi ehundutako sare bat dela. *Bordatxo* da hasiera eta *Bordatxo* dago amaieran. Biak oinarritzen dira egiaz gertatu ziren zoritxarreko pasarteetan. Lehenengoa 50. hamarkadan, bigarrena 1976an. Amaiera biribila du. Idazleak irakurleari barrenera tiro egiten dio. Gordea zuen azken bala eta liburua itxi ondoren ere, irauten du tiro hotsaren oihartzunak.



Iparralde eta Hegoalde kantuan

Et Incarnatus Orkestrak kontzertu berezia antolatuko du datorren apirilaren 26rako Tolosako Leidor aretoan. Kontzertuak 250 artista taularatuko ditu: Et Incarnatus Orkestra; Tolosako Lask Abesbatza; Donibane Garazi, Baigorri eta Hendaiaiko eskola publikoetako haur abesbatza; Gasteizko Crescendo Abesbatza eta Zegamako Orkatx Txiki Haur Abesbatza. Haria Benito Lertxundiren kantuek izango dira, KMK13ri babesa emanez.

Erredakzioa

Leidorreko kontzertua proiektu oso baten emaitzetako bat da. Migel Zeberioi Euskadi Akitania Partzuegoaren diru-laguntza jaso duen egitasmoaren nondik norakoan berri eman dio Galtzaundiri. "Benito Lertxundi Kantatuz" ekimenaren helburuetako bat frantses hiztun elebarrak, euskarara hurbiltzea izan da, bai eta Hegoalde eta Iparraldeko ingurune desberdinetako haurrak harremanetan jartzea ere.

Nola sortu da "Benito Lertxundi kantatuz" proiektua?

Oinarria Iparraldeko eskola publikoetan dago, bertako bi irakasleren ekimenez sortu da. Abiapuntua honakoa: Iparraldeko eskola publikoetan euskara ofiziala ez izatea eta bestetik, bertako irakaskuntza sistemaren baitan musikako irakasgaiaren barruan, ikasleek kontzertu publiko bat

eman beharra.

Normalean aipatu ikuskizun hauek modan dauden abestiek osatzen dira -Disney, filmetako musika, etab.-. Jatorria kontuan hartuta, musika frantsesa edo anglosaxoia aukeratu izaten dute ikastetxeek, sekula ez musika euskalduna. Egoera honen aurrean, Denise Olhagaray, Donibane Garazi eta Baigorriko eskola publikoetako musika irakaslea, eta Jose Antonio San Miguelek, Hendaiaiko eskola publikoko musika irakaslea, duela bost bat urte euskal musikan oinarritutako programak aurkezten hasi ziren. Mikel Laboari buruzko monografiko bat egin zutenean Marisol bere alarguna gonbidatu zuten, beste urte batean Itoiz-i buruzko kontzertua antolatu zuten...

Denisek eta Jose Antoniok Benito Lertxundiren musikarekin antzeko proiektua garatzeko ideia



zutela esan zidaten. Oraingoan musikari profesional batzuen laguntzarekin garatu nahi zuten, baina betiko *handicap*-a zeukaten: musikariak ordaintzeko baliabiderik ez.

Proiektua oso interesgarria iruditu zitzaigunez, apustuak merezi zuela erabaki genuen. Horrela badira hiru urte Et Incarnatus Orkestra barku honetara igo zela. Proiektua martxan jarri, eta presaketak egin ondoren, iazko udaberrian Hendaian eta Baigorriin kontzertu bana ospatu genituen.

Zer nolako harrera izan zuten Hendaia eta Baigorriko kontzertuek?

Oso mundu diferenteak dira, nahiz eta Euskal Herria bi aldeetara izan. Harritu nintzen, hain leku euskaldunean, eskola publikoan euskaraz hitzik ere ez dela egiten jakin nuenean. Bertako eskola publikoetan gainera haurren baliabideak maila apalekoak dira, oso baserritar jendearen seme-alabek, funtzionarioen seme-alabek, oso sektore berezikoek ikasten dute bertan.

Bestalde Iparraldean oraindik, kostatik barrura, oso bertako kultura mantentzen denez, kantatzeko kultura guk baino presenteago dute. Haur batzuek ikaragarri ondo abesten dute, inolako abesbatzetan aritu gabe.



Iparraldean kantua-
rekiko zaletasun hori
dagoenez erantzun oso
ona jaso genuen, Hen-
daiako frontoia eta Bai-
gorriko eliza bete ziren.
Hendaian gainera gure

ondoren Benito Lertxundi bera kantari aritu zen.

Iparraldean oraindik folklore kutxua duten ekitaldiek -euskal dantzak eta kantuek- gure artean, Hegoaldean, baino presentzia nabarmenagoa dute. Askotan, hala ere, euskal kultura horretara mugatzen da, azaleko kontuetara, folklore horretara. Kulturalki eta sozialki Frantses Gobernuak ondo neurtutako kontua da. Eskoletan ordea euskara ez da ofiziala. Kontraesan askoren gunea da.

Kontzertu hauetan musikari profesionalak profesional ez direnekin aritzen dira. Nolako lanketa eskatzen du horrek?

Ez da lan askorik behar. Haiek badute euren martxa abestiek eta gure lana hori denez, edozein egiteko erara moldatu egiten gara. Arazo teknikorik ez da sortzen. Uztarketa polita da.

Harridura handia sortuko du bakarka abestuko duten haur batzuen interpretazioa, lehen kontzertuan jendea malkoka ikusi nuen... Iparraldeko oraindik freskotasun hori dute, baserri eta mendi giroko bat-batekotasuna, guk galdu duguna.

Guztira, 250 partaide igoko dira Leidorreko taula gainera: Et Incarnatus Orkestra; Tolosako Lask Abesbatza; Donibane Garazi, Baigorri eta Hendaiaiko eskola publikoetako haur abesbatza; Gasteizko Crescendo Abesbatza eta Zegamako Orkatx Txiki Haur Abesbatza.

Publikoak diferentzia handiak ikusiko ditu. Profesionalak, abesbatzak eta eskolako haurrak tar-

tean baitaude. Bakoitzak aterako du konklusioa, zeinek hunkitzen duen gehien edo gutxien...

Hamaika abesti abestuko dira guztira. Euskal Herri osoko kantariak izango dira taula gaine; Nafarroakoak, Arabakoak, Gipuzkoakoak eta Lapurdikoak. Kontraste politak izango ditugu jaialdian. Oso erakargarria izango da. Abestiei dagokionez, Benito Lertxundiren abesti guztietatik politenak, ezagunenak eta hunkigarrienak entzungo dira.

Tolosakoaren ondoren kontzertu gehiago eskainiko duzue?

Horrelakorik ez behintzat, horren *potentea* eta horrenbesteko abesbatzekin ez dugu kontzerturik egingo. Apirilaren 27an, Zegamane beste kontzertu bat eskainiko dugu baina orduan Zegamako abesbatzarekin eta Iparraldeko haurrekin. Maiatza amaieran ere Gasteiz eta Agurainen kontzertu bana eskainiko dugu bertako abesbatzekin. Hondarribian ere beste kontzertu bat lotzen ari gara, baina Tolosakoa besteekin alderatuta berezia izango da.

KMK13k antolakuntza aldetik ahalgin berezia egin du, horrenbesteko abesbatza biltzeko. 200 haur elkarteak logistikoki bere zailtasunak ditu. Boluntario askoren lana eskatuko du haur horiei guztiei harrera egitea; merienda eta afaria ematen, adibidez.


irakurri
entzun
lkusi

Txartel bat (des)herrira
Garazi Goia



Ihesi dabiltzanen istorioa da hau. Ibai ihesi doa, bere era-bakiz. Peru, besteen erabakiz. Deserrian gurutzatzen dira biak, ezustean, aldatu nahi luketen iragan bat eta baldintzazko galderak bizi dituzten bitartean: zer gertatuko zen hegazkin haiek herria suntsitu ez balute? Zer gertatuko zen kotxea hartu ez banu?

Ez da amaiera
Gari



Hausnarketara gonbidatzen duten letrak daude “Ez da amaiera” diskoan: bakar-dadea, maitemina, ezintasuna, etsipena, bizitzaren borrorak... Kirmen Uribe, Jon Maia, Jon Benito, Jose Luis Padron eta Fermin Etxegoien idazleen olerkiak Gariren ahotsean.

Deus et machina
Koldo Almandoz



Langilea egunero joaten da fabrikara lanera. Eginbehar zehatz bat egin dezakeen langile bakarra da. Egunero makinak pizteko zere-moniarri ekin, eta bere lan zehatz eta monotonoari helduko dio. Gaur, ordea, erabaki bat hartu du...

hitzorduak

Apirilaren 12tik 26ra bitarteko

Ikastaroa

Emakume-lidergoari buruzko jardunaldia. Apirilak 12, ostirala. Irakaslea: Carmen Garcia. Tolosa, Tolosaldea Goimailako LH Institutua. 16.00-21.00. 20 euro. Izena ematea: 943 651147 edo info@ikastn.com
Zaintza genero ikuspegitik. Apirilak 12, 19, 26 eta maiatzak 10 eta 17. Albiztur, Bidegoian eta Errezilgo herritarrei zuzendua. Gaiak: zaintzaren garrantzia, lanaren banaketa familietan, zailtasunak aztertu, emakumea eta zaintza. Irakaslea: Ana Elozegi Doanik. Izena emateko: Saiaz Gizarte Zerbitzu mankomunitateko 943681128 telefonora edo saiaz@udal.gipuzkoa.net korreoan. Bidegoiango Zentro Balioanitzan eskainiko da, 15.00-16.30

Kirola

Gazte eta Xaharren arteko II. Olinpiada Herrikoia. Apirilak 13, larunbata. Goizean zehar kirolak, jarraian bazkaria, arratsaldean jolasak eta ondoren poteoa musikaz alaitua. Izen emateak liburutegian eta trinketean
Angostina-Kripan. Apirilak 21, igandea. Mendi irteera. Lapoblación 1245 m. Izen ematea: 943 652 789 edo alpinouzturre@hotmail.com. Alpino Uzturrek antolatuta
Iparla. Apirilak 21, igandea. Mendi irteera. Oargi Mendi Elkartek antolatuta
Bailarako IV. Kross Herrikoia. Apirilak 21, igandea. Izen ematea: gazteirura@hotmail.com, jaiotze data eta herria zehaztu.

Irurako plazatik abiatuta, 10.30

Mendizale-tasuna

“Euskal Mendizaletasunaren lekukotasun-historia” trilogia 15 euro (bazkideak 10 euro). Antxon Iturrizaren eskutik. Izen emateak: 688 810 598 edo 669 022 215. Tolosa, Antxon Brandes Bidaia Txokoa. 19.00

Apirilak 15, astelehena. Irudien, dokumentuen eta testigantzen bitartez lehenengo igoaldiak gogoratuko dira, lehenengo istripuak, lehendabiziko rapela eta euskaldunen hasierako sartu-irtenak Pirineoetan eta Alpetan. Gerra zibilaren leherketak euskal mendizaletasunaren progresioari amaiera lasgarria eman zion.
Apirilak 22, astelehena. Pirineotatik Himalayara (1939-1980). Gerra ondorengo urte ilunetatik abiatuz, zailtasuneko eskalada Atxarteko paretetatik, Alpeetako bide legendarioen aurkikuntzara eta 1953ko Mont Blancoko zorigaitzeko istripura. Munduko mendien euskal aurkikuntzaren hasiera izango da, Artiko zein Sahararako espedizio aitzindariak, lehendabiziko zortzimilako eskaladaren oinarria izango dira 1979an Dhaulagirin eta hurrengo urtean Everest gailurrera lehenengo euskal igoera historikoarekin.

Apirilak 29, astelehena. Aro berriak. XXI.mendeko alpinismoa. Gure eskalatzailleen ibilbidea jarraituz, Yosemiteko, Patagoniako edo Baltoroko pareta handien eszenatokietan bidaia tuko dute parte hartzaileek, eta hamalau

zortzimilako lorpen zein ezbeharren igoeren kronika liluragarria gogoraraziko dira.

Antzerkia

Hitzak. Hika Teatroa. Apirilak 12, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30
Bi arreba. Andoni Egaña eta Xabier Lizaso. Apirilak 19, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30

Kontzertuak

Desastrozombis eta SameSugas. Apirilak 12, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30
Siroka eta Norte Apache. Apirilak 13, larunbata. Tolosa, Bonberenea. 22.30
Belarmiña. Apirilak 19, ostirala. Joxi Ubeda eta Iki Poliki. Ibarra, Subegi elkarte. 20.00
Dinero eta Muy Fellini. Apirilak 19, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30
Et Incarnatus eta haur abesbatzak. Benito Lertxundi kantatuz. Apirilak 26, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30. KMK13
Tooth eta Meido. Apirilak 26, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30

Amezketako Mendi Astea

Afaria. Apirilak 12, ostirala. Nikok alaitua. Amezketako Zazpi Iturri elkarte. 20.00. Buruntzunin Mendi Elkartek antolatuta
Ez gara Palestinaz ari. Bertso-emanaldia. Amezketako Kultur Etxea. 19.00
Mendi ibilaldia. Apirilak 14,

igandea. Amezketako plazatik abiatuta. 08.00

II. Errepublika 82. urteurrena

Aurkezpena. Apirilak 13, larunbata. “Memoriaren izenak” liburuaren gaztelerazko bertsioaren aurkezpena. Mikel Errazkin. Tolosa, udaletxeko bilkura aretoa (12.00). Ondoren Plaka inaugurazioa. Diktadurak kargu-gabetutako udal korporazioari omenaldia.
Erakusketa. Apirilak 14 bitartean. Errepublikaren objektu eta argazkien I. erakusketa. Tolosa, Aranburu Jauregia.
Omenaldia. Apirilak 14, igandea. 12.00 Hilerrian dagoen monumenturen aurrean lore eskaintza. 13.00 Bandera errepublikarra jaso, ikurrinarekin batera. Musika banda. Tolosa, Udaletxea eta 14.15tan Herri bazkaria. Tolosa, Zerkausia

Haurrak

Sialuk hartz txikiaren bidaia. Apirilak 20, larunbata. 4 urtetik gorakoentzat. Tolosa, Topic. 18.00
Haur animazioa haur liburutegian. Apirilak 23, asteartea. Irura, haur liburutegia
Ipuin Txokoa. Apirilak 26, ostirala. 3-6 urte bitarteko haurrentzat eta euren gurasoentzat. Kontalaria: Miriam Mendoza. Tolosa, Errota haur liburutegia. 18.00

langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbidek diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Instalazio frigorifikoaren konfigurazioa eta kalkulua	2013.04.22	24
Automatismo hidraulikoak eta elektro-hidraulikoak	2013.04.22	40
Datu baseen aplikazio informatikoak (Acces oinarritzkoa)	2013.04.24	50
Kalitate-erremintak	2013.04.29	24
Lan arrisku eta ingurugiro-prebentzioa txirbil harroketa bidezko mekanizatuan	2013.04.29	30

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?
Jo ezazu Tolosaldea GLHBko bulegora.
Santa Luzia 17 – 20400 Tolosa
Telefonoa: 943.65.11.47 – 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 8 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	Asteazkena, 13 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Astelehena, 18 Morant R. (Zaballarreta, 1) Tolosa
Larunbata, 9 Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa	Osteguna, 14 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	Asteartea, 19 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra
Igandea, 10 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	Ostirala, 15 Iturrioz, I (Euskal Herria, 3) Ibarra	Asteazkena, 20 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa
Astelehena, 11 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	Larunbata, 16 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	Osteguna, 21 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa
Asteartea, 12 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	Igandea, 17 Etxebeste Jesus M ^a (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Ostirala, 22 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketako-Albaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, larriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Bidera Publizitatea
661 678 818
aetxaniz@bidera.eu

TINDATEGIA



Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618



Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak bakar-ka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160268

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 602 684 094. (Amezketak)

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

• Etxeko lanak egiteko lan bila. Ana Mari Atxaga. 634 404 452

• Klase partikularrak. Maila guztiak, talde txikietan. Esperientzia. (Kristina). 652 739808

• Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo ume zaintzaile gisa aritzeko. 602 684094 (Amezketak)

Etxebizitza

• 90m²-ko pisua salgai Anoetako solkorre kalean . Egongela handia, hiru logela, sukaldea, komuna, trasteroa, ganbara ta bi balkoi eguzkitsu Uzturreko bistekin. 130.000€ . 688 887 178

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Villabonan ileapaindegia salgai edo alokairuan. Sartzeko prest. 630 099092

Erosketa

• Teutonia markako bigarren eskuko maxi coscia erosiko nuke. Interesatuak 635708540 zenbakira deitu mesedez. Mila esker

Horoskopoa

Apirilaren 12tik 26ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Bizi duzun momentua aprobetxatu beharko zenuke. Negozio bat martxan jartzeko aukera, praktikoak diren pertsonen aholkuak entzun beharko zenituzke. Antolakuntzarekin gauza gehiago eskuratzeko aukera dago.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Bikotea topatzeko aukera, batik bat jai egun bezperatan. Sormen momentu garrantzitsua, zoriontsua izatea bezalakorik ez baitago. Besteek dutenari ez begiratu.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Lan arazoak medio estres momentu batean murgildurik zaude. Medikura joatearen aukera aztertu ezazu. Hobeto sentitzeko beharrezkoak: maitasuna, hobekuntza pertsonala eta lidergotza.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Hilabete amaieran egoera ekonomikoa zaildu daiteke, aldez aurretik neurriak hartu beharko zenituzke. Lan kontaktu berriek onura ekarriko dizute. Komunikaziorako gaitasuna azaleratu ezazu.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Irudimena martxan jarri eta goza ezazu. Familiarekiko berotasuna erakutsiko duzu. Ezkongabeek harreman berri positiboak landuko dituzte. Baikorki egingo duzu aurrera maitasunari dagokionez.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Zure umore txarrak ez du batere laguntzen. Naturara gerturatu zaitez, ingurugiroaz disfruta ezazu eta geroaldiari begira indarrak hartu itzazu. Ez itzazu janka izugarriak egin, kezkak sabel aldean pilatzen zaizkizu eta.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Gaitzespenak eguneroko kontu bilakatu dira. Arazoei irtenbidea bilatzeko giltza oreka izaten da. Gertuko en konfiantza berreskuratzeko edozer gauza egin beharko zenuke.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Segurtasuna berreskuratu duzu eta horrek proiektu berriak gauzatzeko indarra emango dizu. Aurretik gertatu dena argitu beharko zenuke, bestela zure baitan gordetzeko joera areagotuko zaizu.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Bizitzaz gozatu ezazu, bidean aldaketa bat egoteak ez dizu okerrik ekarriko. Arrakastaren bidea ezagutu baduzu ere, ez diozu onurarik atera. Zoriontsu izaten baino arauak betetzen ahalegin- du zara azken urteotan.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Jarduera berriren bati ekin: osasuna, bikotea, ikasketak, finantzak edota edertasuna. Gaur martxan jartzen duzun horrek ez du geldiunerik izango. Hala ere, gatazka bat baino gehiago ere biziko duzu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Iragana bisitan datorkizu. Denboraren mende utzitako zenbait kontu argituko dira, zauriak oraindik orain ikusgai daude. Espero zenuen mailegu horren baiezk- koa jasoko duzu datozen egunotan.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Osasunari onura atera ahal izateko dieta on baten beharrea zaude. Kiro- lak ere ez dizu batere kalterik egingo, gehien bat azken aldian jasaten ari zaren estres horri erantzuna emateko. Naturak proiektuak ongi bideratzen la- gunduko dizu.



Komikia: Joseba Antxustegietxarte



BLAI
txakur ileapandegia eta osagarriak

Santa Klara 1, baxua A - 20400 TOLOSA

Tel.: 656 779 873
email: blai@tolosa.com

www.blaitolosa.com



LARRE-GAIN

Bertako sagarrarekin egindakoa

Autobus zerbitzua Hernanitik!



Maiatzak 5 srte irekita!

Larre-Gain baserria, Ereñozu Auzoa. 20.120 Hernani
Tel. 943 55 58 46 - Fax. 943 55 58 46



Batxilergoa ikasi nahi duzu?

Leizaran Institutuan aukera baduzu.
Tolosatik hamar kilometrora

Gaztelaniaz zein euskaraz eskaintza zabala:

DBH

Batxilergo Zientifikoa

Humanistikoa

Teknologikoa

Gizarte Integrazioko Goi Mailako Hezkuntza
Zikloa

Gure eskaintza:

-Ondo komunikatuta dagoen ikastetxea

-Gela bereziak

-Liburutegiak

-Laborategia

-Orientazio zerbitzua

-Europako programak: Erasmus programak, Batxilergo
ikasle trukea, ikasketa bidaiak

-...



LEIZARAN
INSTITUTUA

Informazioa: www.leizaran.net

Telefona: 943 300 078

Emaila: 012740aa@hezkuntza.net

zikloa.gipuzkoa@gmail.com